

ERREPUBLIKAREN ALDE ERREPUBLIKAREN ALDE

Ozenki agertzen gara sistema honen aurka; izan ere, pobreziara kondenatzen du gehiengoa, gutxiengo baten mesedetan, eskubide oinarrizkoenak ukatuz; eta aldi berean, askatasunak mugatzen ditu eta parte-hartze demokratikorako osagaiak hertsatzen ditu. Gure iritziz, sistema agortuta dago, bidegabea da eta gabezia demokratiko larriak ditu:

- Gizarte-eskubideak, hasieratik, paper bustiak bihurtu direlako. Besteak beste, lana izateko eskubidea eta etxebizitza duin bat izateko eskubidea.
- Erregimen monarkiko ustela delako, jatorriz ere zilegitasunik ez duena. Instituzio arkaikoa da, supostu demokratiko oinarrizkoenik gabea.
- Frankismoak bere biktimekiko duen inpunitatea konpondu gabe egon dadin uzten duen erregimena delako, konstituzio aurreko legeetan babesten dena; hala baita, esaterako, amnistiraren legea.
- Legearen aurrean desberdindu egiten duelako: inpunitatea, indultu selektiboak eta botereen benetako banantze eza.
- Hezkuntza, kultura eta komunikabide politika pertsonen garapen osorako bideratuta ez daudelako.
- Haien ekonomi eredia ez delako gai, bere izaeragatik, milioika langile eta langaberi bizimodu duina eskaintzeko.
- Herrien autodeterminazio-eskubidea gauzatzeko aldarrikapena egungo eredian jasota ez dagoelako.
- Askatasun demokratikoak eta iritzi-, adierazpide- eta manifestazio-eskubideak larriki mugatuta eta erreprimetuta daudelako.
- Kanpo politikaren bereizgarri nagusia Estatu Batuen eta NATOren interesetara makurtuta egotea delako, gerra inperialista erasokorretan kolaboratuz.

Horiek eta egungo erregimena ezaugarritzen duten eta gaitzesgarriak diren beste elementu batzuk bultzatzen gaituzte eredu berri bat defendatu dezagun. Egiten dugun proposamen hau ERREPUBLIKA da. TRANTSIZIOTIK ATERA DEN EREDU MONARKIKO ETA NEOLIBERALA HAUTSIKO DUEN ERREPUBLIKA, estatu-eredu demokratikoagoa ezarriko duena, askatasun eta berdintasun handiagokoa, non herritarrak edozein gobernu-ekintzaren subjektu nagusiak izango diren eta beren eskubideak eta obligazioak konstituzioan jaso eta legez exijitu ahal izango diren.

Gure asmo irmoa agertzen dugu PROZESU KONSTITUZIOGILE ERREPUBLIKANOA bultzatzeko, herrien, herritarren eta langileen borondate askean oinarritutako Errepublika bat eraikitzeke, eta dei egiten dugu guztiek parte hartu dezaten, edukiz betetzeko, sustatzeko eta defendatzeko.

Kanpora monarkia eta politiko ustelak

Herrien autodeterminazio-eskubidearen alde

Benetako berdintasunaren, gizarte-eskubideen eta langileen eskubideen alde

Amnistia Legea indargabetu

Ez 78ko Konstituzioari. Bai Konstituzio Errepublikanoari.